

UDABERRIA

=====

duen →
Iritxi zaigu udaberria
aldendu zaigu negua
hodei multzoak lurrindu dira
oskarbi dago zerua
mendi gainetik gozoro dator
eguzki distiratsua
edertasunez apainduz goiko
baserria ta ingurua
ohi ~~den~~ bezela huts egin gabe
agertu zaigu kukua.

2

Muskildu dira zuhaitzak eta
zelaiak dira loratu
izadiaren haunditasunak
berriro gaitu agurtu
neguko hormak eta elurrak
eguzkiak ditu urtu
hori dela ta latsak ta errekek
urez dira ugaritu
udaberriko mezua emanaz
kukuak digu kantatu.

3

Egunsentiro entzuten dira
ta berdin arratsaldean
moko horizko zozoen kantak
baso eta oihanean
aurki enarak egingo dute
kabitxoak teilapean
sanjose lore zoragarriak
sortu dira bapatean
alaitasuna nabaritzen dut
nire bihotz barrenean.

Baserritarra bere idiez
alorrean goldaketan
biligarrua txorrotxioka
aritz eder baten puntan
gereziandoak ta sagastiak
ikusten dira loretan
pinpilipauxa han eta hemen
ta karnabak ernalketan
zozo kabia sasi tartean
zozoa uparatzen bertan.

5

Udaberriak apaintzen ditu
zelaiak eta basoak
berpisten ditu hil edo lotan
neguan egontakoak
berritzen ditu gure indarrak
odolak eta sueroak
berotzen ditu odol berriak
ta maitatzeko gogoak
udaberriak sendatzen ditu
aberatsak ta txiroak.

6

Zelai berdeak lore berriez
jansten hasten direnean
txori alaien txorrotxiok
ta kukua entzutean
baserritarra alor erdian
ereinketan dagoenean
zozo kabiak sasi tartean
ikusten ditugunean
esan genezake udaberrian
gaudela bete betean.

Garbizu eta Aranburutar Juanito
1.989

Doinua: Ikusten dezu goizean.
eguna argitzen e.t.b.
(Elizanburu)

MARINEL BATEK EZBEHARRAK

=====

Bertsoz noa agertzera,
nire lehengo izaera,
ta oraingo egoera;
Niretzat aina diru badaukat
nahiz ez eduki sobera,
bihotza daukat minbehera,
ezin naiz jeitsi kalera
nire lagunen artera.

2

Kresala sartuz golkoan,
itsaso bare ta harroan,
lan egin dut luzaroan:
hirurogeita hamaika urte
hainbat lagunen ondoan,
bururatu zait gaurkoan,
ia bizitza osoan,
egon naizela itsasoan.

3

Goizero arginabarrean,
ezartzen naiz lehio ertzean,
bihotza alaitu nahiean:
itsaso zabal oroitzaila
ikusten dut nire surrean,
itsas-txoriak airean,
ontziak zereginean
itsas harro edo barean.

4

Ai! zer leku erosoa,
iparraldean lausoa,
murrumaka itsasoa:
ai! ahal banu pittin bat hartu
luzatuz nire besoa,
emango nuke pausoa,
egongo ez banitz gaisoa,
ta edango nuke osoa.

Itasminaren samina,
daukat alderatu ezina,
handia da nire mina:
zure altzoan murgildu ezinak
sortarazten dit sotina,
ene itsaso urdina,
beti izan zaitut grina,
hain zera harro ta atsegina.

6

Ikusmena lausotuta,
itxaropena galduta,
bizi naiz elbarrituta:
hamaika urte ibili ezinik
bizilekuan sartuta,
leporaino nazkatuta,
egun guztia aspertuta,
bizipazarik ez dut ta.

7

Hamar makulu ta makil,
pausoa eman ezin nabik,
ta ez nago bat ere trankil:
pentsamendu bat nire buruan
itsatsi nahiean dabil,
jakin neska edo mutil,
lehen nintzela oso abil,
baina gaur nahiago dut hil.

8

Gorputza indarrak galtzen,
heritza dut sumatzen,
baina ez naiz ikaratzen:
adizkideak lagundu behinik
itsas aldera hurbiltzen,
bertara banaiz erortzen,
utz nazazue itotzen,
gehiago ez dut eskatzea.

Jon Garbizu Aramburu
1.990.

BASERRIA

=====

Euskal Herriko baserri bat naiz
bete ditut bostehun urte, *benetam*
nire altzoan jaio diranak
beti izan ditut maite;
Hainbat belaunalditan
tinko egon naiz bertan
jasanduz milaka elurte,
nire ustetan egin beharrak
ongi egin ditut bete.

2

Hemen bizitutako asabak
gogoratzen ditudanean,
ur garraiketan ikusten ditut
orduerdiko bidean;
Orduko lan zakarrak
gaur ez dira beharrak
nahikoa daukat etxean,
atarian iturri ederra
ta uraska ate aurrean.

3

Gehienetan ditut ukuiloan
sei behi, bost txahal ta zekorra,
bi zerrama, zaldi ta astoa
hamar ardi ta behorra;
Sei ahuntz eta akerra
ahari adar okerra
etxe ondoan zatorra,
oilotegian berrogei oilo
ukuilu ondoan zimaurrea.

Elektrargirik ez dut eguki
oraindaino nik altzoan,
kandela eta krisailuakin
moldatu naiz luzaroan;
Neguko egun motzak
gaua luze mingotzak
oraindik daukat gogoan,
goibelgarritzko negu luzeak
izaten ziran orduan.

5

Orain dauzkagun aurrerapenak
ez dira nolana hikoak,
etxe barruan jarriak ditut
tresna mota guzikoak;
Gasezko sukaldea
tximinirik gabea
berogailu elektrikoak,
hozgailu eta ikuzgailua
tresneri galtzairozkoak.

6

Oraingo baserritarrak ez du
ia izerdirik botatzen,
hainbat tresna ta makina berriak
ditulako maneiatzan;
Belar eta garoak
zelaieko artoak
ez ditu segaz moztutzen,
ikasi baitu aurrerapenak
bere baserrian jartzen.

BASERRIA

=====

Euskal Herriko baserri bat naiz
bete ditut bostehun urte, *benetam*
nire altzoan jaio diranak
beti izan ditut maite;
Hainbat belaunalditan
tinko egon naiz bertan
jasanduz milaka elurte,
nire ustetan egin beharrak
ongi egin ditut bete.

2

Hemen bizitutako asabak
gogoratzen ditudanean,
ur garraiketan ikusten ditut
orduerdiko bidean;
Orduko lan zakarrak
gaur ez dira beharrak
nahikoa daukat etxean,
atarian iturri ederra
ta uraska ate aurrean.

3

Gehienetan ditut ukuiloan
sei behi, bost txahal ta zekorra,
bi zerrama, zaldi ta astoa
hamar ardi ta behorra;
Sei ahuntz eta akerra
ahari adar okerra
etxe ondoan zatorra,
oilotegian berrogei oilo
ukuilu ondoan zimaurrea.

Elektrargirik ez dut eguki
oraindaino nik altzoan,
kandela eta krisailuakin
moldatu naiz luzaroan;
Neguko egun motzak
gaua luze mingotzak
oraindik daukat gogoan,
goibelgarritzko negu luzeak
izaten ziran orduan.

5

Orain dauzkagun aurrerapenak
ez dira nolana hikoak,
etxe barruan jarriak ditut
tresna mota guzikoak;
Gasezko sukaldea
tximinirik gabea
berogailu elektrikoak,
hozgailu eta ikuzgailua
tresneri galtzairozkoak.

6

Oraingo baserritarrak ez du
ia izerdirik botatzen,
hainbat tresna ta makina berriak
ditulako maneiatzan;
Belar eta garoak
zelaieko artoak
ez ditu segaz moztutzen,
ikasi baitu aurrerapenak
bere baserrian jartzen.

=====

Haritzezko teilatu zaharra
egin dirate aldatu,
komuna guztiz berritu eta
horma zikinak garbitu;
Sukalde ta jangelak
ukuilu ta logelak
tresna berriez hornitu,
lehen ederra banitzan orain
nola nagoen pentsatu.

8

Joan zañurtean etxeko jaunak
ekarri zuen kotxea,
eta denbora asko ez dala
ehun zaldiko traktorea;
Aurrerapen guztiak
ditut ondo ikusiak
baina ez ahaztu ordea,
beharrezkoa dutela haurrek
ardi ta behien esnea.

Teilatuan ezarri didate
telebistaren antena,
etxebarrenean telebista
euskeraz ez dakiena;
Euskera indartzeko
ta haurrak heitzeko
kaltegarria oso dena,
gure hizkuntza galdu ez dedin
euskeraz behar lukena.

10

Betidanik gorde dut altzoan
gure hizkuntza maitea,
euskera maite dutenarentzat
izandu naiz aterpea;
Ez egon hor begira
zatozte baserrira
irekia dut atea,
zure etxetik urrun bazaude
hemen daukazu bestea.

Jon Garbizu Aranburu
1.989.

=====

Betidanikan maite izan zaitut
euskera maitagarria,
beti izan zera gure Herriaren
bizia ta oinarria;
Aspaldi hontan ikusiz zure
egoera hain larria,
bihotzean sentitzen dut gauza
tristeia eta mingarria,
zu hiltzen bazera hilko dalako
betiko Euskal Herria.

=====

Azken berrogei urte hauetan
Euskadi zaigu aldatu,
bertako semeak gehiagotu
ta arrotzak ugaritu;
Gure usadioak baztertuz
beraienak nagusitu,
gure antzinako hizkuntza ederra
ia zaigu desagertu,
karrasi biziz aserre diot
hau ezin leike barkatu.

=====

Euskal Herrian jaio diraden
kanpotarraren semeak,
batzuk dirade euskaltzaleak
etsai gaiztoak besteak;
Denok izanik zabal zabalik
euskaltegiko ateak,
gehientsuenak jartzen dizkate
gure hizkuntzari kateak,
hola portatzen dirade arrotzen
seme bihotzik gabeak.

=====

Amaren titia xurgatuez
ikasi nuen euskera,
askok bezala izandu nuen
maitemintzeko aukera;
Orain ikusiz gure erruez
dijoala goitik behera,
ta bere orde z leku askotan
mintzatzen dala erdera,
barrendamua nabaritzen dut
dijoalako hiltzera.

Aspaldi hontan gaisorik zaude
bihotzeko euskera maite,
gure erru ta zabarkeriez
egin dizugu hainbat kalte;
Zuzen ta garbi jokabagendu
egongo zinake fuerte,
baina oraindik lagundu eskero
ongi indartuko zinake,
eta guztiok zoriontsuak
berriro izango gineke.

=====

Zazpi Herrialde dauzka Euskadik
ta zazpiak zanpatuak,
Lapurdi, Zubero, bi Nafarrak
ta Baskongadasekuak;
Sei edo hamar euskalkiekin
ditugu ezin ulertuak,
baina zuhurki hartu dituzte
neurri zorrotz ta tinkuak,
idazkeretan agindu dezan
beti Euskera batuak.

=====

Ez zera hilko Euskera maite
nahiz gaur egon tamalgarri,
Euskal Herriko seme jatorrak
daudelako zure egarri;
Berriro indartzen hasi zerala
zorionez zaizu igarri,
itsatsitako muskil berriez
izan zaite zabalgarri,
sekularean zure semeak
bizi gaitezen pozgarri.

=====

Bizi zaite ba Euskera maite
eta zabaldu haziak,
bizi mundua bukatu arte
behar zaitu Euskal Herriak;
Zugabe nola uler gintuzke
Iparraldeko anaiak,
zugabe ezingo du kantatu
gehiago bertsolariak,
zu hil baino lehen nahiago nuke
betiko itxi begiak.

BASKONGADASEKO GIROA

=====

Abertzaleok maitatzen dugu
gure hizkuntza garbia
maitatzen dugu bakea eta
nola ez Euskal Herria;
Betidanikan izan ohi dugu
askatasun egarria
ase nahiean emana dute
hainbat gudarik bizia
baina oraindano bat hildakoan
beti sortu da berria.

2

Euskal Herriak etsai haundinak
dauzka etxe barrenean
ahalmen apurren truke dabilta
Herria saldu nahiean;
Madrila joanda belaunikatuz
espainiarren aurrean
edozer gauza egiten dute
dirua bada tartean
gainera pozik agertzen dira
gudari bat erortzean.

3

Baskongadaseko agintariek
galdu ote dute burua
nola Euzkadietik kanpo utsi dute
gurea den Nafarrua?
P.N.V. harremanetan
beti izanda maisua *jaiva*
baina oraingoan aldatu dute
Sabinoren helburua
Euskal Herria maitatzen dute
baina gehiago dirua.

Euskal Herria maitatzen bada
bihotza ta arimarekin
samin haundia nabaritzen du
P.N.V.n jokaerakin; *jokaerarekin*
Abertzaletasuna galduta
nahasi dira Karlistekin
oso erreza ezta izango
libre izatea horiekin
baina berriak sortuko dira
beste jokaera batekin.

5

Baskongadaseko gobernua
abertzaleen etsaia
Euskal Herria zatitu dute
kanpoan utziz anaia;
Hiru lurraldez konformaturik
bete dute beren nahia
Gazteizko gobernuan elkartuz
lana bilakatuz jaia
hainbat maitatzen dugun Herria
lurjota utzi dute ia.

6

Atxilotuta dauzkagun bostehun
gure gudari trebeak
baiezkatzen dut dudarik gabe
dirala gu baino hobeak;
Gudari hilak ezin ahaztu
ditu bertso jartzaileak
erbesteratutako anaiak
ta preso dauden semeak
eta hamaika sufritzen duten
hauen guraso maiteak.

Garbizu eta Aranburutar Juanito

1.988

Xenpelaren:
Aizak hi mutil manontzi...
bezala kantatzeko

EUSKAL HERRIARI

=====

Handia da nire mina
handia nire samina
ikusiz zure nortasunaren
jabetu ezina
ene Herri atsegina
zaude guztiz xehe egina
ez zinateke hola egongo
jatorrak bagina.

2

Zer ari zaizu gertatzen
ez dugu ezer ulertzen
nortasuna ta eskubideak
ari zera galtzen
arazoak ugaritzen
seme jatorrenak hiltzen
ta beste asko zure kontura
sakelak betetzen.

3

Ikusiz zure egoera
moralala erortzen zait behera
zure hizkuntza ta usadioak
galtzen ari zera
ene Herri sentibera
ez galdu gaurko aukera
elkartu zure seme-alabak
ta indartu euskera.

4

Ene Euskadi maitea
kontraesanez betea
ez zaitte harritu hainbat euskaldun
haserre egotea
horra hemen nire eskea
nahi nuke libre izatea
oraingoz zaila daukagu eta
erruki zaita.

Bete ezinik gure nahiak
gabiltza euskaldun anaiak
haserre gaude aspaldi hontan
zure seme alaiak
joan ziran lehengo garaiak
eta denbora lasaiak
aspaldi hontan anai artean
ditugu etsaiak.

6

Eskubideak ahaztuta
gazte asko drogatuta
baina noiz arte biziko gera
abandonatuta
langabezia gehituta
hainbat famili apurtuta
esango nuke bizi generala
iparra galduta.

7

Indarkeria sufritzen
Herria dago itotzen
hainbat pertsona errugabeak
ari dira hiltzen
guztiok bakea eskatzen
baina ez da ezer lortzen
hasi gaitezen bide berriak
edonon bilatzen.

8

Ehunka gazte atxilotu
eta poliziak gehitu
baina ez Madrilen ta ez Euskadin
ez da ezer lortu
zerbait behar da pentsatu
ta erabakiak hartu
atriloketak balio ez badu
mahai berri bat sortu.

Jon Garbizu Aranburu

25 - 3 - 91



Maitasunaren jokabideak
du ilargiaren antza
behera egiten ez duenean
egin behar du gorantza
nire maitasunak nola ez duen
sekula egin beherantza
gora eginez loratu zaigu
maitasunezko baratza



**JUANITO
GARBIZU ARANBURU**

* 1935-06-02 † 2020-02-27